

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Zeintzuk dira behar dituzuen bazkide eta hornitzaile nagusiak zuen proiektua funtziona dezan?

Gure proiektua arrakastaz aurrera eramateko, bi talde garrantzitsu behar ditugu:

1. Ingurumenarekiko aktibistak eta influencer ospetsuak:
 - Hauek gure markaren mezua zabaltzen lagunduko dute sare sozialen bidez.
 - Gure produktuak ezagutaraziko dituzte, eta publiko gehiagorengana iritsiko gara.
2. Ingurumenarekin konprometitutako ONG-ak:
 - ONG hauekin lankidetzan arituko gara eta gure produktuen salmentetatik irabazitako diruaren zati bat dohaintzan emango dugu.
 - Horrela, gure ekarpen soziala handituko dugu eta markaren irudi arduratsua indartuko dugu.

Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

1. Aktibistak eta influencer-ak:
 - Gure markaren ezagutza handitzen dute eta sare sozialen bidez gure mezua zabaltzen laguntzen dute.
 - Haiek publikoarekin konektatzen laguntzen dute, eta horrek gure produktuak gehiago saltzea ahalbidetzen du.
2. ONG-ak:
 - Lankidetzak hauek gure markaren irudi positiboa eta soziala sendotzen laguntzen dute, gizarteari eta ingurumenari laguntzeko konpromisoa erakutsiz.
 - Dohaintzen bidez, bezeroei erakusten diegu gure markak benetan nahi duela gizarteari eta ingurumenari onura ekartzea.

Elkarte hauen rola eta garrantzia

- Aktibistak eta influencer-ak: Haiek izango dira gure markaren ikusgarritasunaren arduradunak sare sozialen bidez, eta gure produktuak ezagutzen lagunduko dute.
- ONG-ak: Gure proiektuaren sozial eta ingurumen arduratsua erakusten dute, eta bezeroei gure ekarpen soziala eta etikoa baloratzea ahalbidetzen diote.